

HAUR ETA NERABEEN UDAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

DEIALDIA

BILKURA: Ohikoa.

EGUNA: 2018.05.29

ORDUA: 10:00.

TOKIA: Bilborock.

PARTE-HARTZAILEAK

Osoko Bilkuraren buru, Gizarte Ekintza Sailaren eskuordetutako zinegotzi Iñigo Pompo Ortiz de Artiñano (alkatearen eskuordetzeaz), Gizarte Ekintza Sailaren zuzendari Iñigo Zubizarreta Aguirrezabalaren laguntzarekin eta idazkari moduan, Osoko Bilkuraren idazkariaren eskuordetzeaz, Eugenia Salterain Altuna; halaber, Itxaso Elorduizapatarietxe eta Nerea Landajo dinamizatzaileen laguntza izan dute.

Osoko Bilkuran parte hartu dute, hasiera batean, bertara deitutako 51 pertsonetatik 42 ordezkari eta, gero, deitutako 43. pertsona batu zaie. Akta honi erantsita doa bertaratutakoen zerrenda. (I. eranskina).

GAI-ZERRENDA

1. Aurkezpena eta agurra.

Presidenteak ongietorria eta eskerrak eman dizkie bertaratutakoei eta berekin dauden pertsonak aurkeztu ditu: Gizarte Ekintza Sailaren zuzendaria eta Kontseiluaren idazkaria. Halaber, Nerea Landajo aurkeztu du, zeinak horma-irudi bat marraztuko duen bilkuran zehar, Kontseiluaren mugarri garrantzitsuenekin.

2. 2017ko azaroaren 20ko Osoko Bilkurako aktaren onarpena

Egiaztatu ondoren behar adinako quoruma dagoela bertaratuen artean, bilkurari hasiera eman dio, 2017ko azaroaren 20ko bilkura-akta onartuz (II. eranskina).

3. 2018ko urtarrileko, otsaileko, martxoko eta apirileko lan-batzordeetan landutako gaiak: Haur eta Nerabeen Udal Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamenduaren araudia; Haur eta Nerabeen Udal Plana eta «Bilbo, Balioen Hiria».

Itxaso Elorduizapatarietxek, zenbait haurren laguntzarekin, La Bolsa eraikinean egindako 4 lan-saioetan landutako hiru gaien laburpena egin du, Kontseiluaren Osoko Bilkurari horien berri emateko eta dagozkion erabakiak hartzeko xedez.

3.1.Haur eta Nerabeen Udal Kontseiluaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudia

Araudian lan egiteko abiapuntua Osoko Bilkurak 2017ko azaroan aurkeztutako zirriborroa izan da; hurrek ekarpenak egin dizkiote zirriborro horri, lan-saioetan. Zenbait hurrek araudiari egindako ekarpenak irakurri dituzte.

Hurrek egindako proposamen eta iradokizun guztiak aztertu ondoren, ondorioztatu da guztiak jasota zeudela hasierako testuan (zirriborroa), zehazki, zioen adierazpenean eta 3., 11. eta 13. artikuluetan (Akta honekin batera egindako lanaren laburpena eranstena da, zeina bilkuraren deialdiarekin batera ere eman aurkeztu zen. III. eranskina).

Horregatik, Osoko Bilkurak araudiaren testu hori (IV. eranskina, araudiaren zirriborroa/aurreproiektua) onartzea erabaki du, martxan jarri ahal izateko araudia prestatzeko eta onartzeko prozesu formala, zeina Udalaren Osoko Bilkurak behin betiko onartzean amaituko den.

3.2.Haur eta Nerabeen Udal Plana.

Umeek Haur eta Nerabeen Udal Planean jasotako jarduketaren inguruan egin dute lan, kontuan hartuta haurrentzat hurbilekoak eta ezagunak diren zazpi esparrutan antolatuta direla, errazago uler ditzaten jarduketaren horiek.

Hauek izan dira hurrek lan-saioetan landu dituzten jardueraren esparruak:

- Partaidetza
- Eskola
- Herritarrak
- Natura
- Aisialdia
- Indarkeria
- Giza Eskubideak

Bikote batek egin du esparru bakoitzaren aurkezpena, eta azaldutakoa laburbiltzen duen dokumentua daraman karpeta bat eman diote presidenteari (akta honekin batera aurkeztu dira agiriak. V. eranskina).

Esparru guztietan egindako proposamenak, ekarpenak, ideiak eta hausnarketak ikusita, Osoko Bilkurak dagozkion arduradunei helaraztea erabaki du, ezagut ditzaten eta, hala badagokio, Kontseiluari nolabaiteko itzulketa egin diezaioten.

Bestalde, Ume eta Nerabeen Udal Plana prestatzeko sortutako Sailarteko mahaiak Planari izena emateko eskatu die Kontseiluko hurrei. Azkenik, haurren artean onarpenik handiena izan duen proposamena hau izan da: «*Etorkizunari Begira - Ume eta Nerabeen Udal Plana*».

Proposatutako izena ontzat ematea erabaki du Osoko Bilkurak, eta Udalbatzari jakinaraziko dio Planaren izena aldatu dela; hala, «Haur eta Nerabeen Udal Plana» izatetik, «*Etorkizunari Begira - Haur eta Nerabeen Udal Plana*» izatera pasatuko da.

3.3.«Bilbo, Balioen Hiria».

Hurrek «Bilbo, Balioen Hiria» proiektuan jasotako balioak ere landu dituzte lan-batzordean.

- Justizia soziala
- Konfiantza
- Topaketa

- Aniztasuna
- Sormena
- Partaidetza
- Konpromisoa
- Ingurumena zaintzea
- Berdintasuna
- Giza eskubideak eta errespetua

Bi gaztek egindako lanaren zenbait ondorio azaldu dituzte Kontseiluan:

- Justizia sozialaren balioari buruz: *«Aipatutako balioez gain, askatasunaren balioa gehitu beharko litzateke». «Askatasuna ez da bakoitzak nahi duena egitea».*
- Bilerari eta topaketari buruz: *«Eskolan gutxi laguntzen diogu elkarri. Horregatik gertatzen da eskola-jazarpena».*
- Sormenari buruz: *«Irudimena ez da soilik marrazteko edo jolasteko gauzak irudikatzea; aitzitik, arazoei konponbideak bilatzen lagundu diezaguke. Garrantzitsua da sormena izatea».*
- Ingurumena zaintzeari buruz: *«Bilbo ez dago oso garbi. Batzuetan edukiontzia beteta egoten dira, eta zaborra kanpoan gelditzen da».*

4. Ondorioak eta amaiera.

Ahamen bat hartzeko tarte bat egin ondoren, bilkurarekin jarraitu da, lau lan-saioretako esperientziak eta bizipenak jasotzen dituen laburpen-bideo batekin.

Presidenteak hitza hartu du bertaratutakoei eskerrak emateko egindako lanagatik. Halaber, gogorarazi du uda ondoren Kontseiluko haurren erdia berrituko dela; hala, 6. mailakoek Kontseilua utziko dute, eta Lehen Hezkuntzako 5. mailako beste haur batzuk sartuko dira haien ordean. Kontseilua utziko duten 6. mailako ikasleei diploma bat eman die.

Bilkura 11:30ean amaitu da, eta Kontseilu osoaren argazkia egin da horma-irudiaren ondoan.

Haur eta Nerabeen Udal Kontseiluaren idazkaria,
Osoko Bilkurako Udal Idazkariaren eskuordetzeaz,
Eugenia Salterain Altuna

Haur eta Nerabeen Udal Kontseiluaren presidentea,
Alkatearen eskuordetzeaz,
Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano

ACTA DEL PLENO DEL CONSEJO MUNICIPAL DE LA INFANCIA Y ADOLESCENCIA

CONVOCATORIA

SESIÓN: Ordinaria.

FECHA: 29.05.2018

HORA: 10:00 horas.

LUGAR: Bilborock.

PARTICIPANTES

Preside el Pleno, el concejal delegado del Área de Acción Social, Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano (por delegación del Alcalde), acompañado del Director del Área de Acción Social, Iñigo Zubizarreta Aguirrezabal, actuando como secretaria, por delegación del Secretario del Pleno, Eugenia Salterain Altuna, y contando con el apoyo de personal dinamizador (Itxaso Elorduizapatarietxe y Nerea Landajo)

Asisten al Pleno, en un primer momento, 42 representantes de un total de 51 personas convocadas, aunque posteriormente se incorpora la 43ª persona convocada. Se acompaña a la presente acta el listado de asistencia. (Anexo I).

ORDEN DEL DÍA

1. Presentación y saludo.

El Presidente da la bienvenida y las gracias por su presencia a las personas asistentes y presenta a las personas que le acompañan: el director del Área de Acción Social y la secretaria del Consejo. Asimismo presenta a Nerea Landajo que durante la sesión irá dibujando un mural con los hitos más significativos del Consejo.

2. Aprobación del Acta del Pleno de 20 de noviembre de 2017.

Tras comprobar que existe quorum suficiente entre los asistentes da comienzo la sesión, aprobando el acta de la sesión de 20 de noviembre de 2017 (Anexo II)

3. Temas tratados en las comisiones de trabajo de enero, febrero, marzo y abril de 2018: Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Municipal de la Infancia y Adolescencia; Plan Municipal de la Infancia y Adolescencia y “Bilbao, Ciudad de Valores”.

Itxaso Elorduizapatarietxe con la asistencia de varios niños y niñas hace un resumen de cada uno de los tres temas trabajados en las 4 sesiones de trabajo celebradas en el edificio del C.M.D de la Bolsa con el objetivo de informar de los mismos al Pleno del Consejo y poder tomar las decisiones oportunas.

3.1 Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Municipal de la Infancia y Adolescencia.

El punto de partida para trabajar el reglamento ha sido el borrador que se presentó en el Pleno de noviembre de 2017, sobre el cual los niños y niñas han hecho sus aportaciones en las comisiones de trabajo. Varios niños y niñas leen las aportaciones al reglamento

Del análisis de todas las propuestas y sugerencias realizadas por los niños y las niñas, se concluye que todas estaban ya contempladas en el texto inicial (borrador), concretamente en la exposición de motivos y en los artículos 3,11 y 13. (Se acompaña a la presente acta el resumen del trabajo realizado, que por otro lado, fue aportado también junto a la convocatoria de la sesión. Anexo III).

Es por ello por lo que el Pleno acuerda aprobar dicho texto de reglamento (Anexo IV borrador/anteproyecto de reglamento) para poder poner en marcha el proceso formal de elaboración y aprobación del mismo, que culminará con la aprobación definitiva del Pleno Municipal.

3.2 Plan Municipal de la Infancia y Adolescencia.

Los niños y las niñas han trabajado sobre las actuaciones que se contemplan en el Plan Municipal de la Infancia y Adolescencia, teniendo en cuenta que, para facilitar la comprensión de dichas actuaciones, se han organizado en siete ámbitos más cercanos y reconocibles para la infancia.

Los ámbitos de actuación sobre los que han trabajado los niños y las niñas en las comisiones de trabajo han sido los siguientes:

- Participación
- Escuela
- Ciudadanía
- Naturaleza
- Tiempo Libre
- Violencia.
- Derechos Humanos.

La exposición de cada uno de los ámbitos corresponde a una pareja, la cual hace entrega al Presidente de una carpeta con documento resumen de lo expuesto. (Se acompaña a la presente acta la documentación. Anexo V).

A la vista de las propuestas, aportaciones, ideas y reflexiones realizadas en los distintos ámbitos, el Pleno acuerda trasladarlas a los distintos responsables para que las conozcan y para que, en su caso, realicen algún tipo de devolución al Consejo.

Por otro lado, la Mesa Interdepartamental creada para la elaboración del Plan Municipal de la Infancia y Adolescencia encargó a los niños y las niñas del Consejo que trabajaran en dar un nombre al Plan. La propuesta que finalmente hubo más aceptación entre los niños y las niñas fue “*Plan Municipal de la Infancia y Adolescencia-EtorkizunariBegira*”.

El Pleno acuerda dar por bueno el nombre propuesto y trasladar a la Junta de Gobierno Municipal el cambio de nombre del Plan, pasando de llamarse “Plan Municipal de la Infancia y Adolescencia” a “*Plan Municipal de la Infancia y Adolescencia-EtorkizunariBegira*”.

3.3 “Bilbao, Ciudad de Valores”.

Los niños y niñas han trabajado también en comisión de trabajo los valores recogidos en el proyecto “Bilbao, Ciudad de Valores”/”Bilbo, Balioen Hiria”:

- Justicia social
- Confianza
- Encuentro
- Diversidad
- Creatividad
- Participación
- Compromiso
- Cuidado del medio ambiente
- Igualdad
- Derechos humanos y respeto

Dos menores exponen en el Consejo algunas conclusiones del trabajo realizado:

- Sobre el valor de justicia social: *“A los valores nombrados habría que añadir el valor de la libertad. “Libertad no significa que cada uno y cada una hagan lo que le dé la gana”.*
- Sobre reunión y encuentro: *“En la escuela nos ayudamos poco. Por eso el Bullying”*
- Sobre Creatividad: *“La imaginación no es solo imaginarse cosas para dibujar o jugar, si no que nos puede ayudar a la hora de inventarnos soluciones a problemas, Es importante ser una persona creativa”*
- Sobre cuidado del medio ambiente: *“Bilbao no está muy limpio, A veces los contenedores están llenos y la basura se queda fuera”.*

4. Conclusiones y cierre.

Tras una pausa donde se toma un tentempié, se reanuda la sesión con la proyección un vídeo resumen que recoge las experiencias y vivencias de las cuatro comisiones de trabajo.

El presidente toma la palabra para agradecer a todos los asistentes el trabajo realizado. Recuerda asimismo que después de verano se renovará la mitad de los niños y niñas del Consejo, dejando el mismo los de 6º curso, que darán paso a los nuevos niños y niñas de 5º de primaria. Hace entrega de un diploma al alumnado de 6º de primaria que deja el Consejo.

Finaliza la sesión a las 11:30 horas, con una foto de todo el Consejo junto al mural.

La Secretaria del Consejo Municipal de la Infancia y Adolescencia, por delegación del
Secretario Municipal del Pleno,
Eugenia Salterain Altuna

El Presidente del Consejo Municipal de la Infancia y Adolescencia,
por delegación del Alcalde
Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano